KULTURA 2.0 - Prestakuntza-pilulak:
Fitxategiak biltegiratzeko, transferitzeko eta konpartitzeko aplikazio praktikoak

2011ko maiatza

Kultura 2.0 ekimenaren barruan, «kultura 2.0 prestakuntza-pilulak» prestatzen eta hedatzen hasi da Kulturaren Euskal Behatokia, EAEn kultura-sektoreko enpresek eta profesionalek egindako eskaerei erantzun zehatza emateko asmoz.


Fitxategiak sarean bidaltzeko, posta elektronikoaren ordezko beste aukera batzuk ere eskaintzen ditu Internetek. Aukera horiek oso baliagarriak dira fitxategiak handiak direnean eta, ondorioz, posta elektronikoa bideragarria ez denean. Ondorenean, bi aplikazio-mota aurkeztuko dizkizuegu, Interneten tamaina handiko fitxategiak biltegiratu edo/eta konpartitzeko aukera ematen dutenak.

Fitxategiak transferitzeko aplikazio batzuk

A. FTP Bezeroa: Adibideak: FileZilla, FireFTP, WinSCP, AceFTP, CoreFTP, GoFTP, NetDrive, CyberDuck…

Programa horiek aukera ematen dute fitxategiak web-zerbitzari batera transferitzeko. Horrela, pertsona batzuei sarbidea eskaini ahal izango diegu, fitxategiak beraiekin konpartitu nahi ditugulako. Aplikazio-mota horiek:

- fitxategiak biltegiratzeko lekua ez digute eskaintzen, beraz sistema hori erabiltzeko zerbitzari para utilizar este sistema.
- beste gailu batzuetatik zerbitzariari konektatzeko bidea dira, eta FTP protokoloa erabiliz, bien arteko informazio-jarioa ahalbidetzen dute[1],



Aplikazio horiek erabili gabe ere, FTP zerbitzari baten bidez, fitxategiak web-ean transferitzeko aukera dugu. Horretarako, nahikoa da nabigatzailean FTP zerbitzariaren helbidea idaztea, web zerbitzariaren kudeatzaileak emandako pasahitza erabiliz. Halere, FTP bezeroa erabiltzea da errazena, baldin eta erabiltzaileak ez badauka informatika eta Internet alorreko ezagutza handirik. Gainera, segurtasunaren aldetik ere, gomendagarriak dira, transferentziak enkriptatzeko SSH baliabideak eskaintzen dituztelako. Arazoei dagokienez, berriz, zerbitzarira sartuko diren ordenagailu guztiak diskoan ezartzea eskatzen dute FTP bezero gehienek.

1. FTP (File Transfer Protocol): sare batean konektatutako sistemen artean artxiboak transferitzeko sare-protokoloa (komunikazio-arauak)
2. Nabigatzaile gehienek FTP bezeroak barne hartzen dituzte. Firefox kasuan, FireFTP plugin behera kargatzea beharrezkoa da.

B. Online biltegiratzeko aplikazioak: Adibideak: DropBox, 4Shared, Google Docs, ISSUU, File Dropper, Windows SkyDrive, Fileserve, Megaupload, Rapidshare...

Aplikazio horiek guztiek erabiltzaileei lekua uzten diete, fitxategiak online biltegiratzeko. Sistema aurrekoaren antzekoa da, zerbitzariari web-bidez edo FTP bidez konektatu gatzaizkioke, eta badu beste abantaila bat: ez du behar zerbitzari propiorik. Alabaina, hori arazoa ere izan daiteke, kasu horretan ez baitugu horren kontrolik izango. Aplikazio horietako batzuek norberaren ordenagailuan ezarpena egitea eskatzen dute.

Cloud computing-aren gorakadarekin, teknologia-enpresa handiek zerbitzu hori eskaintzen hasi dira. Adibidez, Amazonek berrikitan halako zerbitzu bat jarri du abian (Amazon Cloud Drive). Nahiz eta fitxategiak partekatzeko aukerarik eman ez, nabigatzaile baten bidez, konpainiaren dendan erositako abestiak biltegiratu eta entzuteko aukera eskaintzen du eta, gainera, diskoak erosiz gero, leku gehiago ere ematen du.

Aplikazio bakoitzaren prestazioen alderaketa

Eskura ditugun aplikazioen artean aukeratzerakoan, bakoitzaren prestazioak aztertu beharko ditugu, geure premiei hobekien zein egokitzen zaion baloratzeko. Hala, adibidez:

- artxiboen trafikoa enkripatzeko protokolo ziurrak erabiltzea, transferentzian gure fitxategiak ziurrak izan daitezen,
- zein sistema eragilerekin arituko garen (programa batzuk sistema eragile zehatz batzuekin baino ez dabiltza, eta beste batzuk plataforma-anitzak dira),
- interfazea erabiltzeko erraza ote den,
- biltegiratzeko gaitasunaren mugak, fitxategien tamaina eta zenbat denboraz gorde ahal den biltegian.

Aplikazio nagusien ezaugarriak (doako edo ordaintzeko bertsioak)

Aplikazioa	Prezioa	Biltegiratzeko ahalmena	Fitxategien gehienezko tamaina	Zain egon behar da	Biltegiangordetzeko denbora-epea	Izena eman	Transf. ziurra
FTP bezeroa							
FileZilla	Doakoa	Zerbitzariak ezartzen du muga	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai
FireFTP	Doakoa		4 GB	Ez	Ez	Ez	Bai
WinSCP	Doakoa		Ez	Ez	Ez	Ez	Bai
CuteFTP	Ordain		Ez	Ez	Ez	Ez	Bai
Fitxategiak Ostatzeko							
DropBox	Doakoa	2 GB	No[1]	Ez	30 egun	Bai	Bai
	Ordain	100 GB			Ez		Bai
4Shared	Doakoa	10 GB	Ez	Si	30 egun	Bai	Bai
	Ordain.	100 GB		Ez	Ez		Bai
Windows SkyDrive	Doakoa	25 GB	50 MB	Ez	Ez	Bai	Bai
GoogleDocs	Doakoa	1 GB	1 GB	Ez	Ez	Bai	Bai
	Ordain	16 TB	-				Bai
ISSUU[1]	Doakoa	-	100 MB o 500 Pag.	Ez	Ez	Bai	Bai
	Ordain	-	Ez				


1. Flash formatuko argitalpenak sortzeko web 2.0ko tresna, dokumentuak gordetzeko aukera ematen duena. Argitalpenen pribatutasuna ordainpeko bertsioan bakarrik kudea daiteke.

Ondorenean, erreferentzia moduan[1], bi aplikazio ezagun aurkeztuko dizkizuegu: FileZilla eta Dropbox..


FILEZILLA erabiltzen hasteko GIDA BIZKORRA

1. Behera kargatu gure sistema eragilerako FileZilla bezeroaren bertsio egokia eta ordenagailuan ezarri (orri askotatik karga daiteke baina FileZillaren orri ofizialetik egitea gomendatzen dugu).

2. FTP zerbitzariari konektatu: Horretarako, konexio azkarreko barran idatzi behar ditugu FTP zerbitzariaren helbidea, erabiltzailearen izena eta web zerbitzariaren kudeatzaileak emango digun pasahitza, eta ondoren, «konexio bizkorra» botoia klikatu.




3. Artxiboak transferitzea: : Konektatu ondoren, pantailaren ezker aldean («tokiko lekua»), ordenagailuko karpetak eta artxibategiak bistaratuko ditugu, eta eskuinaldean, zerbitzariarenak («urruneko lekua»). Bi sekzioetako bakoitzean, goiko aldean fitxategi-zuhaitza bistaratuko dugu, eta beheko aldean, aukeratutako karpetetako fitxategiak. Fitxategiak transferitzeko, ohiko fitxategi-esploratzaileen antzeko funtzionamendua dauka: aski da aukeratzea eta arrastatzea, ezkerretik eskumara zerbitzarira eramateko, edota eskumatik ezkerrera, ordenagailura eramateko. Badago transferitzeko beste modu bat: aukeratutako fitxategian saguaren eskuineko botoiarekin klikatu, eta «gora kargatu» edo «behera kargatu» aukera egin, nahi dugun bezalaa.




1. Web-aren bidez kargatutako fitxategientzako muga: 300 MB/fitxategiko
2. Informazio osatuagoa nahi dutenek, aplikazioen orri ofizialetan nahiz beste web batzuetan, eskuliburu eta tutorial asko eta asko daude.

4. Pantailaren beheko aldean, fitxategien transferentziari buruzko informazioa agertuko da.



5. Fitxategien transferentzia egiten dugun bitartean Internet erabili nahi badugu, komeni da fitxategiak gora edo behera kargatzeko abiaduraren mugak konfiguratzea, banda-zabalera nahikoa eduki ahal izateko.




DROPBOX erabiltzen hasteko GIDA BIZKORRA

1. DropBoxen orrian izena eman, eta aplikazioa behera kargatu eta ezarri.



2. Ezartzen dugunean, «My DropBox» karpeta sortuko da, guk agindutako lekuan.

3. Fitxategiak gora kargatzeko bi modu daude: programa instalatzean gure ordenagailuan sortu den «MyDropbox» karpetan ezarriz, edo «gora kargatu» aukeraren bidez, DropBoxen webean saioa hasita badaukagu.



4. «MyDropbox» karpeta gure DropBox kontuari lotuta geldituko da; ondorioz, gure gailuetan nahiz web-bidez egiten ditugun aldaketa guztiak sinkronizatuta egongo dira

5. Bi kasuetan, nahi beste karpeta eta azpi-karpeta sortu ahal izango ditugu, gure fitxategiak antolatzeko.

6. Fitxategiak konpartitzeko, «Public» karpetan ezarriko ditugu, eta nahi dugun pertsona guztiei esteka igorriko diegu, e-mailera. «Konpartitu» aukeraren bidez ere parteka ditzakegu karpetak. Kasu horretan, ez da beharrezkoa fitxategiak «Public» karpeta barruan egotea, eta aurreko kasuan bezala, guk aukeratutako erabiltzaileek karpetaren esteka jasoko dute e-mailean.

Kultura 2.0ren inguruko zer beste gai aipa genitzake hurrengo prestakuntza-piluletan?
(ahalik eta hobekien zehaztu)

Bidali e-maila honetara: kulturabehatokia@ej-gv.es